

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko kostu batzuk izango ditugu, kostu hauek ondo gestionatu eta ordaindu beharko ditugu zorrik ez izateko eta etekinak lortzeko.

- **Kostu finkoak:** Enpresa batek irabazietatik aparte dauden kostuak dira. Esate baterako; langileen soldatak, ura, elektrizatea udal-zergak, zenbait zerbitzu, hala nola Internetekoak.
- **Kostu aldakorak:** Enpresa batean egon daitezkeen ekoizpen-mailen mende daudenak dira, gure kasuan; gasa, zerbitzu teknikoak, hala nola proiektu berrietarako arkitektoak edo ustekabeko akatsen bat izanez gero, tekniko kualifikatuen soldatak.
- **Eskala-ekonomiak:** Kostu berdinak izaten, etekin gehiago lortuko dugun epea da, honetan, Adibidez, neguko baldintza klimatikoaren ondorioz gure zerbitzua erakargarriagoa eta erosoagoa izango da familientzat, leku itxi eta epela delako.
- **Hedapen-ekonomiak:** Irismen-ekonomiak gertatzen dira bi produktu edo gehiago batera ekoiztearen kostuak produktu bakoitzaren produkzio-kostuak baino txikiagoak direnean. Produkturik ekoizten ez dugun arren, eskala handian erosiko ditugu eskainiko eta beharko ditugun produktuak, batetik behar ditugun kopuruak nahiko handiak direlako eta, bestetik, ekonomikoki hobeto ateratzen zaigulako.

* **Hasierako inbertsioa:**

Enpresan edo proiektuan hasierako inbertsio bat egin baino lehen hainbat gauza kontuan hartzea beharrezkoa izango da.

- **Merkatuaren egoera:** kontuan hartu behar da merkatuaren tamaina eta egoera nolakoa den proiektuan hasi nahi duzun momentuan. Era berean, kontuan hartu behar da merkaturia aldaketan dagoela beti, hortaz, kalkulatu edo estimatu beharko dugu gure inbertsioa errentagarria izango den edo ez epe luzera.
- **Negozioa:** Salmenten hazkundea. Egiaztatu beharko dugu nola handitu den fakturazioa denboran zehar.
- **Bezeroak:** Zenbat kostatzen den bezero berri bat lortzea aztertzea eta jakitea ere garrantzitsua da. Horrekin lotuta, gizartearen eroera ekonomikoa, kulturala edo soziala adibidez jakiteko beharra dago.

